



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Derio, 2022ko martxoaren 23a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela **Derion, Sukarrietan eta Pasaian dituen lantokietan hondakin arriskutsuak kudeatzeko zerbitzuak azpikontratatzeko, baita IKS-eeMn EDG (ahalduna) gisa kudeaketa-datuak sartzeko ere.**

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Kontratuak **24 hilabete (2 urte)** iraungo du, kontratua sinatzen den egunetik aurrera. Indarraldia iritsitakoan, kontratua automatikoki luzatuko da, salbu eta alderdietako edozeinek beste alderdiari idatziz adierazten badio hasierako epea edo haren edozein luzapen amaitu baino hilabete bat (1) lehenago. Kontratua, luzapenak barne, ez da 5 urtetik gorakoa izango.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Eskaintza ekonomikoa lizitazio honetarako onartuko den gehieneko zenbateko unitarioen batuketaren bidez adieraziko da. 9. ataleko taulan deskribatutakoa da, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa zerbitzu bakoitza amaitzean egingo da, eta fakturak jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko dira.





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doitasun teknikoa	%35
Hobekuntzak	%10
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak ivelez@azti.es helbide elektronikoan eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2022ko apirilaren 8ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI

Norentzat: Agata Basáñez Holgado

Tel. 34 671 740 043

Mail: abasanez@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)

- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.
- Baldintza teknikoek eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikiei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

- Hautatutako erakundeak hondakin arriskutsuak kudeatzeko beharrezko baimena izango du.
- Hautatutako erakundeak hondakinak ateratzeari buruzko datuak sartuko ditu IKS-eeM aplikazioan.

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeko eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

1. Hautatutako erakundeak, AZTIrekiko zerbitzu-harremanak irauten duen bitartean, hondakinen baimendutako kudeaketaz arduratu beharko du, IKS-eeM tresnaren bidez. Hondakinen onarpen- eta jarraipen-agiriak, garraiolarien baimenak, ibilgailuak eta abar kudeatu eta izapidetzeaz arduratuko da (aurretik, prozesuan eta ondoren).
2. Hautatutako erakundeak erretiratutako bidoiak eta ontziak birjarriko ditu, eta egokitze segururako ezaugarri egokiak izango dituzte.
3. Hautatutako erakundeak eguneratuta izango ditu kudeatzaileen, garraiolarien eta abarren baimenak, eta beharrezko eta bidezko diren ebidentziak bidaliko dizkio AZTIri.
4. Hautatutako erakundeak, AZTIrekiko zerbitzu-harremanak irauten duen bitartean, indarrean dagoen lan-arriskuei buruzko araudia bete beharko du, eta edozein unetan eskatu ahal izango zaio araudi hori betetzen duela egiaztatzen duen agiria.
5. Hondakinen, garraioaren eta hornitzailea hautatzeko eta lizitzatzeko prozesuan kontuan hartu beharreko beste parametro batzuen erreferentzia-kopuruak taula honetan zehazten dira:



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

centro: PASAIA				
LER kod.	Hondakina	Estimazioa kg	Gehieneko prezioa/tn	proposatutako prezioa /tn
Cod. LER	Denominación Residuo	Estimación kg	Precio máx/tn	Precio propuesto/ tn
150110	Envases plásticos contaminados vacíos	50	240	
150202	Material contaminado	400	420	
060106	Ácidos y disoluciones ácidas (envases <200l)	40	650	
140603	Disolventes no halogenados (envases ≥200 l.)	250	250	
160506	Residuos y reactivos de laboratorio (envases ≥200 l.)	250	2200	
150110	Envases de vidrio contaminados (envases ≥200 l.)	60	390	
centro: DERIO				
LER kod.	Hondakina	Estimazioa kg	Gehieneko prezioa/tn	proposatutako prezioa /tn
Cod. LER	Denominación Residuo	Estimación kg	Precio máx/tn	Precio propuesto/ tn
060106	Ácidos y disoluciones ácidas (envases 25 l)	75	650	
160506	Residuos y reactivos de laboratorio (envases 25 l)	450	2200	
060205	Bases y disoluciones básicas (envases ≥200 l.)	1300	360	
150202	Absorbentes, materiales de filtración (incluidos los filtros de aceite no especificados en otra categoría), trapos de limpieza y ropas protectoras contaminados por sustancias peligrosas (envases ≥200 l.)	300	420	
150110	Envases que contienen restos de sustancias peligrosas o están contaminados por ellas (envases ≥200 l.)	75	250	
130701	Emulsiones y disoluciones de mecanizado sin halógenos (envases ≥200l)	10	520	
centro: SUKARRIETA				
LER kod.	Hondakina	Estimazioa kg	Gehieneko prezioa/tn	proposatutako prezioa /tn
Cod. LER	Denominación Residuo	Estimación kg	Precio máx/tn	Precio propuesto/ tn
150202	Absorbentes, materiales de filtración (incluidos los filtros de aceite no especificados en otra categoría), trapos de limpieza y ropas protectoras contaminados por sustancias peligrosas	500	420	
150110	Envases que contienen restos de sustancias peligrosas o están contaminados por ellas	30	240	
160506	Productos químicos de laboratorio que consisten en, o contienen, sustancias peligrosas, incluidas las mezclas de productos químicos de laboratorio	350	2200	
130701	Fuel oil y gasóleo (envases <200l)	110	400	
160504	Cartuchos camping gas	15	3500	
140603	Otros disolventes y mezclas de disolventes(envases ≥200l)	190	250	
Otros gastos				
Gastos asociados al transporte:€/servicio deplazamiento			30	
Gastos asociados al transporte:€/transportes por palet			25	
Envases			Gehieneko prezioa/unitatea precio máx/ud	proposatutako prezioa /unitatea proposatutako prezioa /ud
Bidón homologado plástico 80l cierre ballesta			15	
Bigbag homologado m3 con funda			18	
Garrafa 25 l			11	
Bidón homologado metálico 200 l. cierre ballesta			20	
Bidón homologado metálico 200 l. boca estrecha			20	
Bidón homologado plástico 200 l. boca estrecha			20	